

Donostian, 2015eko urriaren 23an

## UDALBATZAKO IDAZKARI NAGUSIARI

### UDALAREN BARRUKO ANTOLAKETA HOBETZEAREN GAINEKO KONTROL MOZIOA

Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua jartzen duena aintzakotzat hartu KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, interpelazio hauen ondorioz:

- UZTAILAREN 2AN TXOMIN-ENEA LO.5 EXEKUZIO UNITATEKO ADMINISTRAZIO EMAKIDAREN KONTRATUA EMATEKO PROPOSAMENA USTEZ ONARTZEAREN GAINEKO INTERPELAZIOA, Ogasuneko Batzordeak 2015eko urriaren 16an izan zuen bileran aztertu zena.
- TXOSTEN BATZUK ESPEDIENTEAN HURA BATZORDEAN AZTERTU ETA GERO SARTZEAREN GAINEKO INTERPELAZIOA, Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordeak 2015eko urriaren 16an izan zuen bileran aztertu zena.
- KONTRATAZIO MAHAIK UZTAILAREN 2a IZAN ZUEN BILERAREN AKTAREN BERTSIO BAT BAINO GEHIAGO IZATEAREN GAINEKO INTERPELAZIOA, Ogasuneko Batzordeak 2015eko urriaren 16an izan zuen bileran aztertu zena.

### JUSTIFIKAZIOA

Udalaren barruko antolaketan arazo batzuk direla erakutsi dute orain dela gutxi gertatu diren gauza batzuek: espediente batean hura batzordean aztertu eta gero sartzea txostenak; esleipen proposamen bat onartzea, Kontratazio Mahaian benetan aztertu ez zena; edota Kontratazio Mahaia egindako bilera baten bertsio bat baino gehiago izatea, konparazio baterako.

Badakigu Udaleko langileek nahiz Udalbatzako kideek ahal duten ondoen egiten dutela beren lana, betiere dituzten baliabideekin eta duten denborarekin.

Baina, barruko antolaketa arazo batzuk direnean, haiek aitortu eta konpontzeko diren baliabide guztiak jarri behar ditugu.

Hori dela eta, hauxe da guk dakargun



## KONTROL MOZIOA

1. Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio barruko lanaren antolaketa hobetzeko hartu behar diren neurri batzuk hartzeko lehenbailehen.
2. Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio kontu-sail bat sartzeko 2016ko aurrekontuan, informazio fluxuen eta onspen prozesuen gaineko azterketa bat egin dezan bereziki horretan aritzen den enpresaren batek. Azterketa horrek, diren prozedurak aztertu eta Udaleko langileek nahiz Udalbatzako kideek dituzten arazo zehatzak hartu behar ditu kontuan. Horrekin batera, barruko antolaketa hobetzeko zuzentze neurriak eta aholkuak ere adierazi beharko ditu.
3. Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio batzorde tekniko bat eratzeko, prozeduren eraginkortasuna eta segurtasuna handitzeko proposamenak egin ditzan hark; esate baterako, kontratazio elektronikoa martxan jartzea, informazio materialik ez izatea (baliabide elektronikoetan ibiltzea informazioa, paperean ibili beharrean) edota dokumentuak elektronikoki kudeatzeko erremintak modernizatzea.

Izpta.: Loïc Alejandro,  
Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzia.